

**ASTIÑENE BASERRIA**  
C MAILA

**EGIA 49**



**Egile eta data ezezagunak**

**Deskribapena**

Oinplano angeluzuzeneko eraikina eta bi isurkiko estalkia, bi oin eta ganbara edo estalkipea dituena. Hareharrizko harlangaitzezko hormak ditu, entokatuak, eta baoen inguruan eta kantoietan hareharrizkoak ere diren silarriz kareztatuak. Fatxada nagusiak konposizio simetrikoa du, bistako zurezko bilbadurekin eta, bigarren oinean eta ganbaran, trikotea. Urumea ibaiaren inguruan kokatua dago malda handiko mazela baten behealdean, eta ez du lur erauzketako obrarik. Barrualdea egoera txarrean dago.

**Babes erregimena**

- 1.- Babes erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: atzealdeko fatxada, alboetako eta aurrealdeko eranskinak, eta abar.
  - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; zurezko bilbadura fatxadan.
  - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak eta handitzeak ez dira onartzen.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzeak: eranskinak eta estalpeak ezabatzea.